

**TREBIÑUKO ENKLABEARI  
BURUZKO  
AZTERKETA SOZIOLINGUISTIKOA**

**2007ko ekaina**

# **AURKIBIDEA**

Aurkezpena eta fitxa teknikoa .....	1
1- Ezaugarri soziodemografikoak .....	4
2- Hizkuntza-gaitasuna .....	13
3- Euskararen erabilera .....	20
4- Euskararen sustapenari buruzko jarrerak .....	26
5- Trebiñuko enklabeen erroldaturik ez dauden biztanleak .....	34
Emaitza nagusien laburpena .....	37

## AURKEZPENA ETA FITXA TEKNIKOA.

Azterketa soziolinguistiko honen helburua bitarikoa da: batetik, Trebiñuko enklabea<sup>1</sup> osatzen duten bi udalerrietako biztanleek euskaraz dakiten eta erabiltzen ote duten aztertzea, eta bestetik, zer-nolako jarrerak dituzten ezagutzea, euskararen ezaguera eta erabilera sustatzeko jardueren aurrean.

Horrezaz gain, azterketa hau 2002an egindako beste baten antzekoa denez, bost urteotan gertatutako aldaketak aztertu ahal izango dira.

Txostenak lau atal ditu:

1. Lehenik azterketa soziodemografiko xume bat egingo da, Trebiñuko enklabean bizi den jendeari buruzko ikuspegi argia izateko, euren ezaugarri bereizgarriak nabarmenduz.
2. Ondoren hizkuntza-gaitasuna aztertuko da, hots, Trebiñuko enklabeako biztanleen euskararen ezagutza-maila eta ezagutza horren jatorria –alegia, familiarengandik jaso ala ikasitakoa den– aztertuko dira.
3. Ezagutzaren ondoren erabilera hartuko da aztergai, hiru esparrutan: etxean, lagunartean eta lankideen artean.
4. Azkenik, euskaraz jakitea eta hitz egitea sustatzeko jardueren aurrean herritarrek zer iritzi eta jarrera dituzten aztertuko da.

Azterketa egiteko informazio bilketa 2007ko maiatzaren 4tik 20ra bitartean egin da, galdetegi itxi eta egituratu batez baliaturik, herritarrei banaka eta euren etxeetan egindako inkestaren bidez. Galdetegi hori 2002ko azterketan erabilitakoarekin bat dator, eta bost urtean behin Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egiten duen Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoan jasotako galdera garrantzitsuenek osatzen dute. Galderok, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) eta Nafarroako herritarren zentsuan jasotakoekin bateragarriak dira.

Aztertutako unibertsoa, Trebiñuko enklabea eratzen duten bi udalerrietako udal erroldatan jasotako biztanleek osatzen dute. Horietatik, begi-bistako arrazoiak direla-eta hiru urtetik beherako pertsonak kendu ostean, abiaburuko unibertsoa 1.795 pertsonak osatzen dute: 472 Argantzungo udalerrikoak eta 1.323 Trebiñuko Konderrikoak. Horietatik 1.370 pertsonari elkarrizketa egitea lortu da, alegia,

---

<sup>1</sup> **Trebiñuko enklabea edo barrendegia:** Arabako (Euskal Autonomia Erkidegoa) lurretan egonik, administratiboki Burgosko probintziarena (Gaztela eta Leongo Erkidegoa) den eskualdea. Azaleran 228 Km<sup>2</sup> hartzen ditu, bi udalerritan banaturik: Trebiñuko Konderria (209 Km<sup>2</sup>) eta Argantzun (19 Km<sup>2</sup>)

guztizkoaren %76,3ri. Elkarrizketatuen ehunekoa antzekoa da bi udalerrietan: %76,6 Argantzunen eta %76,2 Trebiñuko Konderrian.

2002ko azterketarekin alderatuta, oraingo honetan 108 pertsona gehiagori egin zaie elkarrizketa (1.262ri lehen eta 1.370i orain), enklabeko herritarren kopuruak gora egin baitu. Ehunekotan ordea jaitsi egin da inkestatuen proportzioa, aurreko inkestako %80,3tik oraingo %76,3ra.

Gainerako %23,7 ezin elkarrizketatu ahal izateko arrazoiak hiru izan dira:

1. %5ek ez diote galdetegiari erantzun nahi izan. Kasuren batean edo bestean, ezezkoa emateko arrazoiak zerikusia izan du inkestan jorratutako gaiarekin, alegia, euskararekin, baina kasu gehien-gehienetan arrazoa izan da ez zutela "inolako inkestarik" erantzun nahi.
2. Beste %2,7 denbora luzean etxebizitzatik kanpo (ospitalean, oporretan, lanean...) zeuden pertsoneri dagokie, edota galdetegiari erantzuteko moduan ez zeuden pertsoneri (batik bat oso nagusiak diren pertsoneri), edo abiaburuko unibertsoan jaso behar ez zirenei (hilda zeudelako, erroldatu gabe zeudelako edo zerrendatan bi aldiz agertzen zirelako).
3. Azkenik, ezinezkoa izan da gainerako %16rekin harremanetan jartzea, nahiz eta bakoitzari gutxienez bost bisita egin zaizkien, ordu eta egun diferentetan, asteburuetan ere bai. Horietako gehienak Trebiñuko enklabean erroldatuta egon arren (batik bat eraiki berri diren urbanizazioetan), ohiko egoitza ez dute bertan.

2002ko azterketarekin alderatuta, inkesta egiteari ezetza eman diotenen ehunekoa murriztu egin da, %7tik %5era, baina hazi egin da harremanetan jarri ezin izan den pertsonen ehunekoa, %12tik %16ra. Azken hazkuntza hau zuzenean lotuta dago Trebiñuko enklabean erroldatuta egonik (bereziki urbanizazio eraiki berrietan), ohiko etxebizitza bertan ez duten herritarren hazkundearekin.

Herritarren %23,7 elkarrizketatu ezin izan denez, baliteke azterketaren emaitzetan nolabaiteko alborapena agertzea. Izan ere, batetik, elkarrizketari ez erantzuteko pertsona batzuen arrazoiak euskararekin zuen zerikusia, eta, beraz, eragindako alborapena txikia baina euskararen aldekoa izango litzateke. Bestetik, eurekin harremanetan jartzea ezinezkoa izan den urbanizazio berrietako pertsoneri dagokienez, ez dirudi egoera horrek alborapena eragingo duenik, eta, eraginez gero ere, alborapen hori aurrekoaren aurkakoa izango litzateke; izan ere, datuak aztertutakoan egiaztatu ahal izan denez, urbanizazio berrietako emaitzak euskararen aldekoagoak dira (apur bat besterik ez bada ere). Hortaz, alborapen biek seguru aski kontrako noranzkoa izanik, elkarrekin orekatuko lirateke, eta guztiz orekatuko ez balira ere, alborapena minimoa izango litzateke.

Emaitzetan alborapenik ez dagoen arren, edo beraz minimoa den arren, hala ere unibertsoko pertsona guztiak ez dira elkarrizketatu eta, alde horretatik, esan behar da azterlan honek lagin batetik jasotako emaitzak aztertzen dituela. Nolanahi ere lagina hain zabala izanik (unibertsoaren %76,3) eta unibertsoa finitua izanik (1.795 pertsona) laginaren errorea oso txikia da:  $\pm 1,3$  %95eko konfiantza-mailarako, lagin osoaren emaitzetan, alegia, inkestetan egon ohi dena baino askoz txikiagoa, eskuarki  $\pm 3$ tik gorakoa izaten baita.

Aztertutako unibertsorekin jarraituz, ez dira aintzat hartu Trebiñuko enklabeen ohiko egoitza izanik bertako udaletan erroldatuta ez dauden pertsonak. Gizatalde garrantzitsua da hori, bai kopuruari zein taldearen ezaugarriei dagokienean ere, eta beraz, horren jakitun izanik, enklabeen erroldatutako pertsonaren bat zegoen etxebizitza guztietan elkarrizketatu dira, baita ere, erroldatuta ez dauden baina normalean bertan bizi diren pertsonak, eta aparteko laginean gorde dira emaitzak. Hartara, enklabeen bizi bai baina erroldatu gabeko beste 290 pertsonari buruzko informazioa jaso da, eta horien emaitzak modu independentean aztertu dira txostenaren 5. atalean.

Azkenik, txostenaren muinean sartu aurretik, adierazi behar da emaitzak Trebiñuko enklabeko biztanleria bere osoan hartuta aztertuko direla, eta baita enklabeko bi udalerrietakoak bereizita ere. Ildo horretan komeni da alde aurretik adieraztea, oro har, Trebiñuko Konderriko emaitzak Argantzungoak baino gehiago gerturatuko direla enklabe osoaren batez besteko emaitzetara, izan ere, enklabeko herritar gehienak, %74, Trebiñuko Konderrian bizi baitira.

Bestalde emaitza interesgarrienak aztertuko dira, galdetegian jasotako aldagai soziodemografiko nagusien arabera: sexua, adina, jatorria eta ikasketak.

## **1- EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKOAK**

Gaur egun Trebiñuko enklabeen bizi den biztanleriaren ezaugarri soziodemografikoek duela 20 edo 30en bat urtekoekin alde handia dute. Batetik, jakina denez, nekazaritza-lanak uzteko joera etengabea izanik, belaunaldi berriak Gasteizko industriako edo zerbitzuetako enpresetara bideratu direlako –enklabetik gertuen dagoen hiria horixe baita–, eta bestetik, azken 10 urteotan eraikitako urbanizazio berrietara biztanle berri ugari heldu delako, enklabeen biztanleriaren osaera errotik aldatzea eragin duena.

Hala, Trebiñuko enklabeen biztanleen herena baino gehiago urbanizazio berri horietan bizi da: Argantzungo biztanleen erdia gutxi gorabehera, eta Trebiñuko Konderriko biztanleen laurdena baino gehixeago. Urbanizazio horietan bizi diren lagun gehienak “eredu-profil” batekoak dira, ezaugarri zehatzak dituzte: senar-emazte gazteak dira, batez beste 30-50 urtekoak, seme-alabadunak edo seme-alabarik gabekoak, senar-emazteek biek egiten dute lan, eta Gasteiztik joan dira enklabera bizi izatera, nahiz eta Gasteizen lan egiten duten.


### **Sexua eta adina.**

Enklabeen herritarren lehen bereizgarria, nabarmenena ez bada ere, zera da, gizonen ehuneko emakumeena baino handiagoa dela, %55 eta %45 hurrenez hurren. Desoreka hori Trebiñuko udalerrian besterik ez da gertatzen (%57 gizonak dira eta %43 emakumeak), eta bereziki nabarmena da “bertan jaiotako” herritarren artean, izan ere, “bertakoen” ia bi herenak (%63) gizonenak baitira.


Adinaren arabera banaketan, berriz, are desoreka handiagoa dago. Hurrengo orrialdeko grafikoak erakusten duenez, biztanleriaren erdia baino gehiago (%57) 25-49 urte bitartekoa da, 49 urtetik gorako pertsonen biztanleriaren herena osatzen dute (%30), eta 25 urtetik beherakoak, berriz, %14 besterik ez dira.

Adinaren arabera banaketa hori, alegia, biztanleen erdia 25-49 urte bitartekoa izatea eta zazpiren bat 25etik beherakoa, Trebiñuko enklabeen biztanleen bereizgarrietako bat da, eta eragina izango du beste ezaugarri soziodemografikoetan, batik batik biztanleria aktiboaren ehuneko handia eraginez.

“Erroldatu gabeko biztanleak” (5. atalean aztertuko dira) eta baita erroldatuak ere, denak batera kontuan hartuz gero, sexuaren eta adinaren arabera banaketan dagoen aldea murriztu egiten da –neurri batean bada ere–, batik batik 25 urtetik beherako biztanleen kopuru txikiari dagokionez.



Adinaren araberako banaketa antzekoa da udalerri bietan, hala ere 64 urtetik gorako pertsonen ehunekoak handixeagoa da Trebiñuko Konderrian (%14) Argantzunen baino (%10), eta txikiagoa aldiz 25 urtetik beherakoen ehunekoak (%13 Konderrian eta %17 Argantzunen).



Berriz ere gehien bereizten direnak “bertakoak” (enklabean jaiotakoak) dira, izan ere, euren batez besteko adina handia da: %54k baino gehiagok 50 urte edo gehiago dituzte. Nolanahi ere, gizatalde honen barruan garrantzia hartzen ari dira


16 urtetik beherakoak, eta honezkero taldearen %17a dira, horietako gehienak urbanizazio berrietan bizi diren eta jaiotzez bertakoak ez diren biztanleen seme-alabak.

### Jatorria.

Trebiñuko enklabeen jaiotakoak dira biztanleen laurdena, %26a, eta gainerako biztanleengandik ondo bereizteko ezaugarriak dituzte: 50 urtetik gorako gizonak gehiengoa dira, nahiz eta, arestian esan bezala, 16 urtetik beherakoak ere garrantzia hartzen ari diren (honezkero, bertan jaiotakoen %17 dira).

Biztanle-multzo handiena (%39) Araban jaiotakoena da (gehien-gehienak Gasteizen), eta EAEn jaiotako gainerakoekin (%11) batera, enklabeen biztanleriaren erdia osatzen dute.

Azkenik, %4 besterik ez da Burgosko probintzian jaiotakoak (gehienak Mirandan), eta aipagarria da Espainian edo munduko beste leku batzuetan jaiotako gainerako biztanleen kopurua, %20a.




Beraz, bi udalerrietan biztanleen erdia EAEn jaioa da, baina “bertakoen” ehunekoa handixeagoa da Trebiñuko udalerrian Argantzunen baino, %28 eta %21 hurrenez hurren. Bestalde, Espainian edo beste leku batzuetan jaiotako pertsonen ehunekoa handixeagoa da Argantzunen (%25) Trebiñuko udalerrian baino (%18).

Adin-talde bakoitzean “bertakoek” duten presentziari erreparatuz, oso gutxi dira, %10 inguru, erdiko adin-tarteetan (25-34 eta 35-49 urteak), eta gehiengoa



dira, berriz, muturreko adin-tarteetan, 64 urtetik gorakoen %57 eta 16 urtetik beherakoen %50.


Beraz, 16 urtetik beherako biztanleriaren erdia enklabean bertan jaioa da, eta horixe da 2002ko datuekin alderatuz gertatutako aldaketa nabarmenena. Horietako gehienak urbanizazio berrietan bizi dira, eta bertan jaio ez diren gurasoak dituzte.



### Lan-jarduera eta lanbidea.


Trebiñuko enklabeako biztanleen beste bereizgarri garrantzitsu bat – adinaren arabera banaketa berezi horren ondorio– lan egiten duten pertsonen proportzio izugarri handia da; izan ere, hiru biztanletik bik, %66k, lan egiten du (%19k bere kontura eta %47k besteren kontura). Langabezia, berriz, oso txikia da, %4ri besterik ez baitio eragiten.

Lanean ez dihardutenak: %12 erretiratuta dago; %6k etxeke lanetara emanda dago eta %12 ikasten ari da.




Lan egiten duten pertsonen ehunekoa berdina da udalerrri bietan, hala ere, euren kontura lan egiten dutenen ehunekoa handixeagoa da Trebiñuko Konderrian (%21) Argantzunen baino (%15), eta alderantziz gertatzen da inoren kontura lan egiten dutenekin (%45 eta %52 hurrenez hurren).

Gainera, jubilatuen ehunekoa handiagoa da Trebiñun Argantzunen baino (%14 eta %7 hurrenez hurren), eta etxeko andreen ehunekoa berriz, txikiagoa (%5 eta %10).




Lan egiten duten pertsonen lanbideari dagokionez, talde ugariena enplegatuena da (%37). Horien ostean, langile arruntak (%17), autonomoak eta merkatariak (%17), teknikariak eta profesional liberalak (%17), eta azkenik nekazariak (%12).



Nekazarien multzoa garrantzitsua da, baina azkar ari da behera egiten, nekazarien batz besteko adina nahiko handia delako. Hala bada, bost urteotan talde honek %18tik %12ra egin du behera.

Udalerrri batetik bestera diferentzia ohargarriak daude; izan ere, nekazarien eta langile arruntaren ehunekoak nabarmen handiagoak dira Trebiñun (%14 eta %21 hurrenez hurren) Argantzunen baino (%7 bi lanbideetan). Enplegatuen ehunekoak, aldiz, kontrako joera du: %33koa da Trebiñun eta %48koa Argantzunen.

Lan egiten dutenen laurik hiruk, %73k, Araban egiten dute lan (Gasteizen gehien-gehienak), eta laurik batera ez dira iristen, %22, Trebiñuko enklabean bertan lan egiten dutenak. Gainerako %5ek EAEko beste leku batzuetan, Mirandan, etab. egiten dute lan.



Udallerri batetik bestera apenas dago alderik, baina nabarmena da, berriz, adinaren arabeko aldea. Izan ere, enklabean bertan egiten du lan 35 urtetik beherako pertsonen hamarrenak, 35-49 urte-bitartekoak laurdenak eta 50-64 urte-bitartekoak ia erdiak (zehazki %44k).

Azkenik, enklabean bertan jaioak diren herritarrak eta kanpoan jaio direnen artean alde nabarmenak ageri dira. Bi herritar-multzo horien batezbesteko datuak erkatuz, handiagoa da “bertakoak” erretiratuak diren ehunekoak (%28) eta ikasleena (%20); beraz, txikiagoa da lan egiten duten pertsonen ehunekoak (%46). Lan egiten dutenen “bertakoak” hirutik ia bik (%61ek) Trebiñuko enklabean egiten dute lan eta erdia nekazaria da (%47).

Sexuaren arabera ere badira aldeak, eta emakumeen profila eta gizonena desberdinak dira, baina ez nabarmen desberdin, joera nagusietan. Bada, lan egiten duten emakumeen ehunekoak txikiagoa da baina, hala ere, handia da (%55); eta lanbideari dagokionez, erdia (%50) enplegatua da; %19 teknikoa edo lanbide liberaletakoa, %12 autonomoa edo merkataria, %11 nekazaria eta %8 langile arrunta.

### **Ikasketa-maila.**

Trebiñuko enklabea herritarren ikasketa-maila inguruko herrietako biztanleenaren antzekoa da. %17k ez ditu oinarrizko ikasketak amaitu (horietatik ia erdia lehen hezkuntzako ikasle adingabeak dira, oraindik ikasten dabilta beraz); %29k oinarrizko ikasketak edo OHO egin du; %13k DBH edo LH1, %24k goi-batzilergoa, BBB edo LH2; %8k goi-mailako ikasketak (erdiko gradua) eta %9k goi-mailako ikasketak.

Ikasketa-maila ez da ia aldatzen udalerraren edo sexuaren arabera, baina adinaren arabera aldea, jakina, oso nabarmenak dira. Horren eraginez, “bertakoen” ikasketa-maila enklabetik kanpo jaiotakoena baino askoz txikiagoa da.

Ikasketei dagokienez, egun ikasten ari direnen laurdenak (%25) besterik ez du Trebiñuko enklabea ikasten, eta horixe da agian daturik aipagarriena. Gainerakoek, gehien-gehienek (%67) Araban (Gasteizen) ikasten dute; %5ek Burgosen (Mirandan), eta %2k beste zenbait lekutan.

12 urtetik beherakoen artean ere, gutxienak dira (%41) Trebiñuko Enklabea ikasten dutenak.

## Sintesi-tipologia.

Atal hau amaitzeko, eta laburbilduz, esan dezagun Trebiñuko enklabekeo biztanleria hiru multzok osatzen dutela, hirurak elkarrengandik oso desberdinak, herritarren ezaugarri soziodemografiko ondo bereiztuen arabera, hala nola:

1. Muturretako batean “bertakoak” daude, Trebiñuko enklabean bertan jaio diren herritarrak. Biztanleria osoaren laurdena dira.  
Horietako gehienek enklabean egiten dute lan, eta euren ikasketa-maila batezbestekotik behera dago. Erdia baino gehiago 50 urtetik gorako pertsonak dira, eta nekazaritza-sektoreari lotuta daude.
2. Beste muturrean “azkeneko 10 urteotan iritsitakoak” daude. Immigrazio hori enklabean azken urteotan eraikitako urbanizazioei dagokie, eta biztanleriaren herena baino gehiago dira.  
Horietako gehienak 30-50 urte-bitarteko senar-emazteak dira, seme-alabadunak nahiz seme-alabarik gabekoak, eta Gasteiztik joan dira enklabera bizi izatera. Oro har, bikoteko bi kideek egiten dute lan, Gasteizen.
3. Bi muturren artean –iritsi berrien ezaugarrietara gehiago hurbildu arren– “lehenago iritsitakoak” daude, alegia, enklabera bizitzera duela hamar urte baino gehiago iritsitakoak, eta biztanleriaren ia herena osatzen dute.

Hiru kolektibo hain desberdinek elkaturik osatzen dute enklabearen biztanleria, eta hartara, ezaugarri zehatz batzuez hornitzen; hona hemen azpimarragarrienak:

- Biztanleen hiru laurdena enklabetik kanpo jaio da (erdia Euskal Autonomia Erkidegoan).
- Erdia baino gehiago 25 eta 49 urte-bitartekoa da.
- Hirutik bik lan egiten du (gehienak Gasteizen).
- Ikasle-jende gehien-gehienak, baita lehen mailako ikasketak egiten ari direnak ere, enklabetik kanpo ikasten dute, Gasteizen batik bat.

2002. urteko datuekin alderatuz, bost urte besterik igaro ez den arren aldaketa ohargarriak gertatu dira enklabekeo biztanleriaren egiturari. Herritarren kopurua %15 hazi da eta hazkunde horrek, gehien bat Gasteiztik iritsitako lagunez osatua, ondorio nagusi bi ditu: batetik, enklabearen gaurko biztanleriak antz handiagoa du, oro har, urbanizazio berrietan bizi diren herritarrekin “bertako jatorrizko” herritarrekin baino; bestetik, eta aurrekoaren eraginez, Trebiñuko enklabea osatzen duten bi udalerriek gero eta ezaugarri soziodemografiko antzekoagoak dituzte.


## 2.- HIZKUNTZA-GAITASUNA

### Hizkuntza-gaitasuna.

Trebiñuko enklabeko biztanleriaren %13,5 elebiduna da, alegia, euskaraz nahiz gaztelaniaz zuzen edo nahiko ondo hitz egiten du. Zifra absolutuetan, gutxi gorabehera 250 biztanle dira elebidunak. Ia elebidun guztiak (%90) euskaraz irakurtzeko eta idazteko gai dira, horietako gehienek euskara ikasi dutelako eskolan edo euren kabuz.


Horrezaz gain, biztanleriaren %13 elebidun hartzailea da, alegia, euskaraz apur bat hitz egiteko gai da, eta nahiko ongi ulertzen du. Zifra absolutuetan 250 pertsona, gutxi gorabehera.

Udalerrika, elebidunen ehunekoa handixeagoa da Trebiñuko udalerrian Argantzunen baino (%14,5 eta %11,5 hurrenez hurren). Aitzitik, elebidun hartzaileen ehunekoa handixeagoa da Argantzunen Trebiñun baino (%16 eta %12 hurrenez hurren).



2002an egindako azterketarekin alderatuta, Trebiñuko enklabeko elebidunen ehunekoa 3,5 puntu hazi da, %10etik %13,5era, eta elebidun hartzaileena berriz 5 puntu, %8tik %13ra.


Udalerrika begiraturaz gero, 2002tik hona elebidunen ehunekoa antzera hazi da bi udalerrietan: 4 puntu Trebiñun eta 3 puntu Argantzunen.



### Hizkuntza-gaitasuna adinaren eta beste aldagai batzuen arabera.

Hizkuntza-gaitasuna nabarmen aldatzen da adinaren arabera. Elebidunak ia erdia dira 16 urtetik beherakoen artean (%46), herena (%34) 16 eta 24 urte-bitartekoengan, seirena (%16) 25 eta 34 urte-bitartekoengan, hamarrena (%9) 35 eta 49 urte-bitartekoengan, oso gutxi (%4) 50 eta 64 urte-bitartekoengan, eta ia inor ere ez (%1) 64 urtetik gorakoengan.

Elebidun hartzailleen ehunekoak ere antzeko bilakaera du adinaren arabera, baina leunagoa. Hala, %27koa da 16 urtetik beherakoen artean, %17koa 16 eta 24 urte-bitartekoengan, eta baita 25 eta 34 urte-bitartekoengan ere, %15koa 35 eta 49 urte-bitartekoengan, %4koa 50 eta 64 urte-bitartekoengan, eta %0 berriz 64 urtetik gorakoengan.








25 urtetik beherakoen artean handia da, beraz, elebidunen ehunekoa (%46 3-15 urte-bitartean eta %34 16-25 urte-bitartean), baina horrek ez dauka espero zitekeen bezainbesteko eraginik biztanleria osoaren elebidunen ehunekoaren (%13,5) gainean. Izan ere, biztanleria osoan gazteek “pisu” txikia baitute, %14koa baino ez. Bestela balitz, eta enklabeko herritarren adinaren arabera banaketa orekatuagoa balitz, adibidez Arabakoaren antzekoa, oraingo gazte elebidunen ehunekoa izanik, biztanleria osoaren elebidunen ehunekoa %18 ingurukoa izango litzateke.

Beraz, eta kontrako badijadi ere, enklabeko elebidun gehienak ez dira gazteak. Izan ere, eurretako %43a baino ez dira 25 urtetik beherakoak; hortaz, elebidunen erdiak baino gehiagok 25 urte edo gehiago ditu (25 eta 49 urte bitartean, batik bat).

Elebidunen ehunekoa jatorriaren arabera ere aldatzen da, nahiz eta aldaketa hori ez den adinaren arabera bezain nabarmena. Horrela, bada, EAEn jaiotako (gehien-gehienak Araban) herritarren artean %21 da elebidun; %8ra jaisten da, berriz, Trebiñuko enklabearen jaiotakoaren artean, eta %3ra beste leku batzuetan jaiotakoaren artean.

Nolanahi ere, 2002ko urtearekin alderatuz, bikoiztu egin da elebidunen ehunekoa “bertakoak” artean, %4tik %8ra igaro baita; izan ere, Trebiñuko enklabearen jaiotako gazteen ehunekoa handitu egin da, eta joera horri eutsiko zaio aurrerantzean ere.



Elebidunen ehunekoa sexuaren arabera ia ez da aldatzen, nahiz eta handixeagoa den emakumeen artean (%14) gizonen artean baino (%13koa).

Ikasketa-mailaren arabera berriz, nabarmen aldatzen da elebidunen ehunekoa: goi-mailako ikasketak dituztenen artean %23koa da, erdi-mailako ikasketak dituztenen artean %12koa, eta lehen mailako ikasketak dituztenen artean %7koa.

### **Hizkuntza-mugikortasuna.**

Trebiñuko enklabeko elebidunek familiaren bidez jaso dute euskara, edo bestela ikasi egin dute, bai eskolaren bidez edota euren kabuz (gau-eskolak, ikastaro trinkoak ...)

Kontuan izanik biztanleriaren %4,4k baino ez duela izan ama-hizkuntza euskara (%2,5ek euskara soilik eta %1,9k euskara eta gaztelania biak batera), horrek esan nahi du enklabeko elebidun gehien-gehienek (biztanleriaren %13,5 dira), euskara ikasi egin dutela.

Gainera, ama-hizkuntza euskara izan duten guztiek ez dute gerora gorde, baina bai gehienek: %93k eutsi dio euskarari, baina %7k galdu egin du neurri batean eta gaur egun elebidun hartzailea da.


Beraz, enklabeko %9,5ek ikasi egin du euskara, bai hezkuntza-sistemaren bidez edota bere kabuz.

Elebidunen taldeari erreparatuta, euskara-ezagutzaren jatorriaren arabera hiru multzo bereizten dira:

1. ia heren batek, %30ek, ama-hizkuntza euskara izan du: %18k euskara besterik ez eta %12k euskara eta gaztelania biak batera.  
Adinaren araberrako banaketa, elebidunen multzo osoarenaren antzekoa da.  
Erdia, %52, lehen mailako ikasketak D eremuan (ikasketak euskaraz, gaztelania ikasgai izanik) egiten ari da edo egin ditu, eta %11 B eremuan (elebiduna). Gainera, %14k euskara bere kabuz ikasi du.
2. Erdiak gutxi gorabehera (%42) hezkuntza-sistemaren bidez ikasi du euskara.  
Ia denek 35 urte baino gutxiago dituzte, eta gehienek (%64) 25 urtetik behera.  
Erdiak baino gehiagok (%59) D eremuan ikasi du edo ari da ikasten, eta %30 berriz, B eremuan.
3. Laurdenak baino apur bat gehiagok (%28) euskara bere kabuz ikasi du, hezkuntza-sistematik kanpo.

la denek 24 urtetik gora dituzte, eta horietatik gehienek (%63) 34 urtetik gora.

2002ko datuekin alderatuz, hazi egin da hezkuntza-sistemaren bidez euskara ikasi duten pertsonen ehunekoa, %36tik %42ra, eta murriztu berriz euren kabuz ikasi dutenen ehunekoa, %36tik %28ra.



Udalerrien artean alderik bada ere, oso alde txikiak dira. Hala, bada, Argantzunen elebidunen %24k familiaren bidez hartu du euskara, eta Trebiñun %32k. Euren kabuz ikasi dute euskara, Argantzunen, elebidunen %34k eta Trebiñun %26k.


Elebidun hartzaile ia guztiek ikasiz lortu dute egun daukaten euskara-maila, hezkuntza-sistemaren bidez gehienek, eta gainerakoek euren kontura. Bestalde, %3 besterik ez da ama-hizkuntza euskara izanik hizkuntza neurri handi batean galdu duena, euskaldun hartzaile izateraino.

### **Hizkuntza-gaitasun erlatiboa: elebitasun-mota.**

Aurreko atalean ikusi denez, Trebiñuko enklabeko elebidun gehienek (%70) ikasiz lortu dute euskara jakitea. Hortaz, ez da harrizkoa horietako gehienak (%61ek) gaztelaniaz euskaraz baino errazago moldatzea; %30ek diote bi hizkuntzetan erraztasun berarekin jarduten dutela, eta %9ek besterik ez diote euskaraz errazago moldatzen direla.


Emaitzak ez dira asko aldatu 2002. urtetik hona. Urte hartan %57 gaztelaniaz moldatzen zen errazago, %39 bi hizkuntzatan berdin eta %4 euskaraz hobeto.

Bi udalerrietan gehiengoa dira gaztelaniaz hobeto moldatzen diren elebidunak, %54 Argantzunen eta %63 Trebiñuko Konderrian.




Hizkuntza-gaitasun erlatiboa ama-hizkuntzarekin (A.H.) estu loturik dago. Horrela, bada:

- Ama-hizkuntza euskara izan zutenen heren bat (%36) euskal elebiduna da, %46 elebidun orekatua, eta bosten bat besterik ez (%18) erdal elebiduna.
- Euskara eta gaztelania, biak ama-hizkuntza izan zituztenen heren bi (%65) elebidun orekatua da, eta laurden bat (%26) erdal elebiduna.
- Azkenik, ama-hizkuntza gaztelania izan zutenen hiru laurden (%78) erdal elebiduna da, eta bosten bat (%20) elebidun orekatua.




Gainera, ama-hizkuntza gaztelania izan duten herritarren kasuan, lotura dago lehen mailako ikasketak egin zuteneko hizkuntzaren eta orain duten hizkuntza-gaitasun erlatiboaren artean.

Hala, bada, B, A edo X ereduetan ikasi duten elebidun gehienak (%88) erdal elebidunak dira, eta ehuneko hori %61era murrizten da D ereduaren ikasi dutenen artean.



Azkenik, hizkuntza-gaitasun erlatiboari dagokionez, adinaren arabera ia ez dago alderik.



### **3.- EUSKARAREN ERABILERA**


Atal honetan euskararen erabilera aztertuko da, hiru eremu aintzat hartuta: etxea, lagunartea eta lantokiko kideak. Horrezaz gain, familia-giroan 25 urtetik beherako neba-arreben arteko erabilera ere izango da aztergai.

Euskara erabili ahal izateko ezinbestekoa da, lehenik, behar besteko hizkuntza-gaitasunaren jabe izatea, eta aldi berean elkarrizketa-kide guztiek, edo gehienek behintzat, gaitasun hori bera izatea.

Hortaz aise uler daiteke Trebiñuko enklabean euskaraz gutxi hitz egitea, izan ere, biztanleriaren %13,5 besterik ez da erraztasunez egiteko gai, eta gainera horietako gehienek ez daukate ingurugiro euskaldunik, lehen adierazitako lau eremu horietan.

Hala, etxean eta lankideen artean %5ek besterik ez du hitz egiten, gutxi-asko, euskaraz. Lagunarteko erabilera handixeagoa da, %13koa, eta ehuneko handiena 25 urtetik beherako neba-arreben artekoari dagokio, %24koa.


Erabilera antzekoa da enklabe bi udalerrietan, baina Trebiñun zertxobait handiago, elebidunen ehunekoa ere handixeagoa baita bertan.



2002ko datuekin alderatuz, orain gehixeago hitz egiten da euskaraz, batik bat elebidunen ehunekoa handitu delako. Hala, etxeko erabilera %4tik %5era igo da, lankideen artekoa %7tik %13ra, eta 25 urtetik beherako neba-arreben artekoa %19tik %24ra.

Ehuneko hauek Trebiñuko enklabea guztiak, elebidunak eta elebakarrak, kontuan hartuta atera dira, baina soilik biztanle elebidunak hartuz gero ehunekoek nabarmen egiten dute gora. Hala, euskaraz jarduten du, gutxi-asko, elebidunen laurdenak baino gehiagok (%28) etxean; herenak (%32) lankideekin; 25 urtetik beherako erdiak baino gehiagok (%55) neba-arrebeekin, eta bi herenek (%68k) lagunekin.

Aitzitik, normalean euskaraz jarduten duten elebidunak –alegia, gaztelaniaz bezainbat edo gehiago jarduten dutenak– gutxiengoa dira, bosten bat gutxi gorabehera, lau eremuetan. Zehatz esanda: elebidunen %16k neba-arrebeekin hitz egiten du euskaraz, %17k lankideekin, %19k etxean eta %29k lagunartean.




2002ko datuekin alderatuz gero, aztertutako lau eremuetan ia ez da aldatu euskaraz jarduten duten elebidunen ehunekoa. Soilik nabarmendu liteke apur bat igo dela lagunartean euskaraz jarduten dutenen ehunekoa, eta txikitu berriz neba-arreben artean euskaraz gaztelaniaz beste edo gehiago dihardutenena.

Arestian ere adierazi denez, euskararen erabilera baldintzatzen du, hein handi batean, eremu bakoitzean dagoen elebidunen dentsitateak, izan ere, euskaraz hitz egiteko beharrezkoa da pertsona guztiak, edo gehienak behintzat, euskaldunak izatea.

Hurrengo grafikoan ikusten denez, elebidunen %26k dute lankideen sarea nagusiki elebiduna (erdiatik gora, alegia, gutxienez bi herenak); %29k etxeko kideen sarea; %39k lagunartekoa, eta %86k 25 urtetik beherako neba-arreben sarea. Ehuneko hauek 2002ko urtean lortutakoen antzekoak dira.


Hortaz, baieztatu egiten da sareko euskaldunen dentsitatea eta euskararen erabilera batera doazela. Hala, bada, euskaldunen dentsitatea txikiena den eremuetan, lantokia eta etxea, hortxe hitz egiten da euskaraz gutxien. Bi eremuetan ez da %30era iristen sarea nagusiki euskalduna duten elebidunen ehunekoa, eta era berean ez da %30era iristen euskara erabiltzen duten elebidunen ehunekoa.






Aitzitik, 25 urtetik beherako elebidunen neba-arreben arteko erabileraren kasuan arazoa ez da sareko euskaldunen arteko dentsitatea; izan ere, gehienek (%86) neba-arreba elebidunak dituzte eta, beraz, elebidunen dentsitatearen efektua ezereztatuta gelditzen da ia. Eremu horretan, euskararen erabileran eragin handiena duen bigarren aldagaia agertzen da, alegia, hizkuntza-gaitasun erlatiboa (hizkuntza batean edo bestean hitz egiteko erraztasun handiagoa), aurreko atalean aztertua izan dena.

Hurrengo orrialdeko grafikoan ikus daitekeenez, euskal elebidun guztiek maizago jarduten dute neba-arrebekin euskaraz gaztelaniaz baino; baina elebidun orekatu gehienek (%73k) maizago jarduten dute gaztelaniaz euskaraz baino, eta beste batzuek gaztelaniaz besterik ez (%20). Erdal elebidunei dagokienez, berriz, lautik hiruk (%74) gaztelania hutsean jarduten du, eta gainerako %26ek gaztelaniaz dihardu euskaraz baino usuago.




Azkenik, erabilera eta adinaren arteko lotura garbi erakusten duen eremu bakarra lagunartekoa da, zeren eta beste eremuetan (etxean eta lantokian) belaunaldi desberdinetako pertsonak egoten baitira.

Grafikoan ikusten denez, lagunarteko erabilera ez da oso desberdina adin batean edo bestean, hala ere 3-15 urte-bitarteko haurrak mintzo dira euskaraz gehien (%83), eta beste adin-taldeetan berriz, euskaraz mintzo direnen ehunekoak %60 ingurukoa da. Elebidun gazteagoak gehiagotan aritzen dira euskaraz, horiek baitute lagunartean euskaldun gehien.



Aitzitik, Trebiñuko enklabe biztanle guztiak –ez soilik elebidunak– aintzat hartuta, euskararen erabilera lagunekin nabarmen aldatzen da adinaren arabera; hizkuntza-gaitasuna ere beste horrenbeste aldatzen da. Horrela, 3-15 urte-bitarteko pertsonen erdia baino gehiago mintzo da euskaraz; 16-24 urte-bitartekoen laurdena, 25-49 urte-bitartekoen hamarrena eta 50 urte edo gehiagoko ia inor ere ez.




## 4.- EUSKARA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERAK

Atal honetan, Trebiñuko enklabeko biztanleek euskararen inguruan dituzten iritziak eta jarrerak aztertuko dira. Zehazki honako arlo hauek izango dira aztergai: euskararekiko interesa, haurrek eskolan ikasi beharko luketen hizkuntza-ereduaren gaineko iritzia, euskaraz ikastea eta hitz egitea sustatzeko ekintzen aurreko jarrera, eta enklabeko bi udalak euskararen inguruan egiten ari diren lanari buruzko iritzia. Galderak, hamabost urtetik gorako herritarrei bakarrik egin zaizkie, gazteagoei egiteak ez bailuke zentzurik.

### **Euskararekiko interesa.**

Zalantzarik gabe euskararekiko interesa badaukate Trebiñuko enklabeko biztanleek: %39k interes handia edo nahikoa dutela adierazi dute, eta %22k interes apur bat; %38k aldiz, interes gutxi edo bat ere interesik ez dutela esan dute.

Euskararekiko interesak gora egin du 2002 urtearekin alderatuta, orduan herritarren %29 besterik ez zegoen oso interesatuta edo nahiko interesatuta.



Euskararekiko interesa ez da ia aldatzen udalerrri batetik bestera, baina bai nabarmen aldatu, aldiz, beste zenbait aldagairen arabera, hala nola:

- Hizkuntza-gaitasunaren arabera gertatzen dira alde nabarienak: elebidun gehienek (%85) euskararekiko interesa dute, baita elebidun hartzaile gehienek

ere (%72), baina erdal elebakarretik laurdenak baino apur bat gehiagok (%29) besterik ez du interesa agertu.


- Ondoren, jatorriaren arabera: EAEn jaiotakoek dute interes handiena (%55ek), enklabeen jaiotakoen %23k besterik ez, eta gainerako lekuetan jaiotakoen %24k.
- Ikasketa-mailaren arabera nabarmen egiten du gora euskararekiko interesak. Hala, goi-mailako ikasketak dituztenen erdiak (%48) du euskararekiko interesa, baita erdi-mailako ikasketak dituztenen erdiak (%49) ere; aitzitik, lehen mailako ikasketak dituztenen laurdenak baino gehixeagok (%29) besterik ez, eta lehen mailako ikasketak amaitu ez zituztenen zapiren batek (%15).
- Adinak gora egin ahala interesak nabarmen egiten du behera. Hala, 50 urtetik beherako pertsonen ia erdiak du euskararekiko interesa, 50 eta 64 urte-bitartekoaren heren batek (%32), eta 64 urtetik gorakoaren zazpiren batek besterik ez (%14).
- Azkenik, sexuaren arabera ia ez dago alderik.

### **Haurrek ikasi beharko luketen hizkuntza-eredua.**

Enklabeko lau biztanleetatik hiruk (%76) pentsatzen dute haurrek B ereduan (elebiduna) edo D ereduan (euskaraz, gaztelania ikasgai izanik) ikasi beharko luketela, izan ere, eskola-adineko haurrik izanez gero, B eredua (%41) edo D eredua (%35) hautatuko luketelako. Gainerako laurdenak berriz, %13k, A eredura (gaztelaniaz, euskara ikasgai izanik) joko luke eta %11k X eredura (gaztelaniaz bakar-bakarrik).

2002. urtearekin alderatuta, hazi egin da B eta D ereduen aldeko herritarren ehunekoa, %67tik %76ra. Hazkunde hori D ereduaren aldekoen multzoan gertatu da soilik, %25etik %35era igo baita.


Udalerrika, iritziak ez dira funtsean aldatzen, nahiz eta Argantzunen Trebiñun baino gehiago diren D ereduaren (euskaraz) alde daudenak (%44 eta %31 hurrenez hurren), B ereduaren (elebiduna) aldekoen kaltetan.



Gainerako aldagaien azterketan, euskararen aldeko interesa aztertzean adierazi berri diren joerei eusten zaie, nahiz era leunagoan. Hala bada, talde guztietan gehiago argi batek nahiago du haurrek B edo D ereduari ikastea. Jarrera horietatik aldentzen dira 64 urtetik gorako herritarrak, lehen mailako ikasketarik gabekoak, eta beste leku batzuetan jaio direnak, baina, hala eta guztiz ere, horien guztien %60k ere B/D ereduari bidaliko lituzke haurrak.

Trebiñuko enklabeko eskola publikoaren hizkuntza-ereduari dagokionez, emaitzak aurreko galderan lortutako antzekoak dira, baina D ereduaren aldekoen ehunekoak behera egiten du, B ereduaren mesedetan. Zehatzago esanda, erdiak (%49k) B ereduari (elebiduna) ezarri beharko lituzatekeela uste du; laurdenak (%23), berriz, D ereduari (euskaraz), eta gainerako laurdena, azkenik, A ereduari (gaztelaniaz, euskara ikasgai izanik) edo X ereduari (gaztelania hutsez) aldekoa da, %16 eta %10 hurrenez hurren.

2002 urtearekin alderatuta, hazi egin dira enklabean B ereduari ezartzearen aldekoak (%45tik %49ra) eta D ereduari ezartzearen aldekoak (%14tik %23ra).



Enklabeko bi udalerrietan B eredia da eskola publikorako gogokoena (Trebiñun %54 eta Argantzunen %36). D ereduak berriz, aldeko gehiago ditu Argantzunen Trebiñun baino (%29 eta %21 hurrenez hurren), eta baita A ereduak ere (%27 eta %12 hurrenez hurren).

Aurreko galderan bezala, euskararen aldeko interesa aztertzen zenekoan, honetan ere joera berdinei eusten zaie, baina askoz leunagoak. Horrela bada, gizatalde guztietan gehiengo nagusia azaltzen da Trebiñuko herri eskolan B edo D ereduak ezartzearen alde. Jarrera honen aldeko ehunekorik txikiena (%58) kanpoan jaiotako herritarrei dagokie.

Adibidez, adinaren arabera ez dago alde handirik, nahiz eta adinak gora egin ahala gutxiago diren B edo D ereduaren aldekoak: %79 dira 16 eta 24 urte-bitartekoengan, %78 25 eta 34 urte-bitartekoengan, %71 35 eta 49 urte-bitartekoengan, %69 50 eta 64 urte-bitartekoengan, eta %66 64 urtetik gorakoengan.


D ereduari soilik begiratuta, aldeko jarrera handiena elebidunek ageri dute (%50), ondoren elebidun hartzaileen %43k, EAEn jaiotakoen %31k eta 50 urtetik beharakoen %30ek.

### **Euskararen ezaguera eta erabilera sustatzeko jardueren aurreko jarrera.**

Elkarrizketatuei, lau esaldirekin zenbateraino zeuden ados edo kontra adierazteko eskatu zitzaion. Esaldi horiek Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikokoan erabiltzen dira, euskara jakitea eta erabiltzea sustatzeko jardueren aurreko jarreraren tipologia zehazteko.

Esaldiak “oso zorrotzak” dira eta iritzi hutsa baino gehiago adierazten dute. Hona hemen horietako bakoitzaren alde edo kontra agertu diren pertsonen ehunekoak:

- “Nahiago dut euskara ikastea ingelesa baino”: %29 ados eta %45 kontra.
- “Trebiñun hartzen diren irrati eta telebista guztiek programa gehiago izan beharko lituzkete euskaraz”: %28 ados eta %29 kontra.
- “Administrazio publikoan sartzeko beharrezkoa izan beharko luke euskaraz jakitea”: %47 ados eta %35 kontra.
- “Ezinbestekoa da Trebiñuko haur guztiek euskara ikas dezaten”. %60 ados eta %22 kontra.




Lau galdera horien erantzunak konbinatuz, euskara jakitea eta erabiltzea modu “aktiboan” sustatzeko ekintzen aurreko jarreraren tipologia eratu da, eta hauxe da emaitza:


- Enklabeko herritarren herenak baino gehiagok (%35) euskara sustatzearen aldeko jarrera du: %12 oso aldekoa da eta %23 nahiko aldekoa.
- Ia laurdenak (%23) kontrako jarrera du: %13 nahiko kontrakoa da eta %10 oso kontrakoa.
- Ia erdiak (%42) ez du ez aldeko ez kontrako jarrera argirik.

Udalerrri bien artean alde handia dago, izan ere, Trebiñuko Konderrrian euskara modu “aktiboan” sustatzearen alde daudenak (%37) kontra daudenen (%20) ia bikoitza dira, eta Argantzunen aldiz, alde daudenak (%28) gutxixeago dira kontra daudenak (%32) baino.





Bestalde, 2002 urtearekin alderatuta nabarmen egin du gora euskara modu “aktiboan” sustatzearen aldeko jarrerak, alde daudenen ehunekoa 10 puntu igo baita (%25etik %35era), eta apaldu, berriz, kontra daudenen ehunekoa (%35etik %23ra). Hobekuntza hori Trebiñuko udalerrian gertatu da oso-osorik, eta gogoratu behar da 2002an udalerrri horretan gehiago zirela kontra zeudena alde zeudena baino.



Aztertutako gizatalde guztietan gehiago dira euskara modu “aktiboan” sustatzearen alde daudena kontra daudena baino; salbuespen bakarra dira

“beste leku batzuetan” jaiotakoak, izan ere, horien %22 besterik ez dago alde, eta kontra berriz %36.

Euskararen sustapenari buruzko jarrera aldatu egiten da herritarren hizkuntza-gaitasunaren eta jatorriaren arabera. Hona hemen, bada, alde daudenen ehunekoak:

- elebidunen %65, elebidun hartzaileen %49, eta elebakar erdaldunen %28.
- EAEn jaiotakoen %43, Trebiñuko enklabean jaiotakoen %31, eta beste leku batzuetan jaiotakoen %22.

Aitzitik, sexuaren, adinaren eta ikasketa-mailaren arabera banaketan ez dago alde handirik; nahiz eta jarrera zertxobait aldekoagoa duten gizonak, 35 urtetik beherakoak eta bigarren mailako ikasketak dituztenek.

### **Euskara sustatzeko udalak egindako lanari buruzko iritzia.**


Azkenik, inkestakoei eskatu zitzaizkien udalak euskara sustatzeko egiten duen lana balioets zezatela, eta datu aipagarriena izan da %38k ez zuela galderari erantzuten jakin; horrek zalantzan jartzen du galderaren baliozkotasuna, eta baita jasotako erantzunen baliozkotasuna ere, seguru aski hainbatek irizpide garbirik gabe erantzun baitzuten.

Udalaren lanaren gaineko iritzia eman zutenen artean:

- %3ri desagokoa iruditu zitzaion, behar baino urrutiago iritsi delako,
- %16ri egokia iruditu zitzaion, ez delako beharrezkoa hori baino gehiago egitea,
- %25i egokia iruditu zitzaion, euskararen alde asko egiten duelako,
- eta %18ri desagokoa iruditu zitzaion, euskararen alde gutxi egiten duelako.

Ehuneko horiei erreparatuta, bistan da gehien-gehienek egokitzat jotzen dutela udalak egindako lana eta oso gutxi ageri direla udalaren lanarekin kritiko, urrutiegi jo duelakoan; aitzitik, aintzat hartzeko moduko pertsona-multzo bat kexu da udalak euskararen arloan gutxiegi lan egiten duelako.

2002ko emaitzekin alderatuz, ez da funtsezko aldaketarik izan



Udalaren lanarekin konformeago daude Argantzungo herritarrek Trebiñukoak baino, izan ere, haien %50ek egokitzat jotzen du udalaren lana, eta Trebiñun ordea %38k. Izan ere, Trebiñun herritar gehiagok uste du udalak euskararen arloan lan gutxi egiten duela (%20 Trebiñun eta %11 Argantzunen).

Zer nahi gisaz, Trebiñun, hein batean gutxienez, udalaren lanarekin kezu dira euskara gehiago bultzatu –eta, beraz, hobeto sustatu– beharko litzatekeela uste baitute.

Nolanahi ere, aztertutako talde guztietan nabarmen gehiago dira udalaren lanarekin ados daudenak, ados ez daudenak baino.

Udalak euskararen alde lan gehiegi egiten duelako haren jarduerarekin ados ez daudenen ehunekoa batezbestekotik (%3) gora dago talde hauetan: 50 urtetik gorakoen artean (%4), lehen mailako ikasketak dituztenen artean (%4) eta beste leku batzuetan jaio direnen artean (%4).

Udalak euskararen alde lan gutxiegi egiten duelako haren jarduerarekin ados ez daudenen ehunekoa batezbestekotik (%18) gora dago talde hauetan: elebidunen eta elebidun hartzailen artean (%29), 25 eta 34 urte-bitartekoaren artean (%26), bigarren mailako ikasketak dituztenen artean (%24) eta Euskal Herrian jaio direnen artean (%23).

## **5.- TREBIÑUKO ENKLABEAN ERROLDATURIK EZ DAUDEN BIZTANLEAK**

Txostenaren sarreran adierazienez, enklabeen erroldatutako pertsonaren bat bizi den etxebizitza guztietan elkarrizketatu dira, baita ere, denbora gehiena bertan bizi diren baina enklabeen erroldatuta ez dauden gainerako pertsonak. Informazio hori aparteko laginean jaso da eta atal honetan ematen da 290 “erroldatu gabeko biztanleri” buruzko informazioa. Gizatalde garrantzitsua da, bai lagun-kopuruagatik zein euren ezaugarri bereziengatik. Hona hemen zein diren ezaugarriok:

### **Ezaugarri soziodemografikoak.**

“Trobiñuko enklabeen erroldatu gabeko biztanleak”, ia guztiak, erroldatutako pertsonen senarrak edo emazteak (%52) edota seme-alabak (%45) dira. Talde horren laurdena baino gehixeago (%28) Argantzunen bizi da, eta gainerako ia hiru laurdena (%72) Trobiñuko Konderrian.

Taldearen erdia baino gehixeago (%54) emakumeak dira. Baina taldearen benetako ezaugarri bereizgarria, “erroldatutako biztanleekin” alderatuta, gaztetasuna da, izan ere, 25 urte baino gutxiago dute erroldatu gabekoen %37k (%14 erroldatuen artean), 25-49 urte-bitartean %41ek, eta 49 urte baino gehiago %22k.

Erdia baino gehiago, %54, EAEn jaiotakoa da (Arabaren nagusiki), %31 Trobiñuko enklabeen eta %15 beste leku batzuetan.

Hain gazteak izanik, asko dira euren artetik ikasten dabiltzanak (%29) (%12 “erroldatuen” artean), eta lanean ari direnen ehunekoa, berriz, %47koa da (%66 “erroldatuen” artean).

Lan egiten dutenen erdia baino gehiago (%55) enpleguak dira (%37 “erroldatuen” artean), eta ia ez dago nekazaririk (%3) (%12 “erroldatuen” artean).

Gehien-gehienek Araban dihardute: ikasten dutenen %82, eta lan egiten dutenen, %84 (“erroldatuen” artean, berriz, %68 eta %73).

Azkenik, ikasketa-maila antzekoa dute erroldatutako zein erroldatu gabeko biztanleek.

Argantzungo “erroldatu gabeko biztanleak” Trobiñukoak baino gazteagoak dira, eta ikasketa-maila handiagoa dute. Bestalde, Argantzungoen artean gizonak dira nagusi (%63) eta Trobiñukoen artean, berriz, emakumeak (%61).

### **Hizkuntza-gaitasuna.**

Erroldatu gabekoen %25 elebidunak dira, eta %16 elebidun hartzaileak (erroldatuen artean %13,5 eta %13 hurrenez hurren); elebidun gehiago daude, batez ere, erroldatu gabekoak gazteagoak direlako.

Hortaz, Trebiñuko enklabeen bizi direnen artean –erroldatuta egon zein ez– %15,5 elebidunak dira eta %14 elebidun hartzaileak.

“Erroldatu gabeko” elebidunen %27k familia-bidez jaso zuen euskara, %50ek eskolan, eta %23k bere kontura ikasi zuen; beraz, “erroldatutako” elebidunen antzeko ehunekoak.

“Erroldatu gabeko” elebidunen %4 euskal elebidunak dira, %33 elebidun orekatuak eta %63 erdal elebidunak, guztiak ere, “erroldatutako” elebidunen antzeko ehunekoak.

“Erroldatu gabeko” herritarren artean, elebidunen ehunekoa askoz handiagoa da Argantzunen (%36) Trebiñun baino (%21)

### **Euskararen erabilera.**

Erroldatu gabeko biztanleek euskaraz hitz egiten dute, gutxi-asko, %5ek etxean, %7k lankideekin, %21ek lagunekin, eta %21ek neba-arrebekin (soilik 25 urtetik beherakoen kasuan).

Elebidunei soilik erreparatuta, euskaraz hitz egiten du %16k etxean, %38k lankideekin, %40k 25 urtetik beherako neba-arrebekin, eta %73k lagunekin.

Hortaz, “erroldatutako” elebidunekin alderatuta, gutxiago mintzo dira euskaraz etxean (%16 erroldatu gabekoen eta %28 erroldatuek) eta neba-arrebekin (%40 eta %55); aldiz, gehixeago mintzo dira euskaraz lankideen artean (%38 erroldatu gabekoen eta %32 erroldatuek) eta lagunekin (%73 eta %68).

Euskaraz gehiago edo gutxiago hitz egitea lotuta dago, zuzen-zuzenean, elebidunen dentsitatearekin. Horrenbestez, “erroldatu gabeko” elebidunek “erroldatuek” baino elebidun-proporzio txikiagoa dute etxean eta neba-arreben artean (gutxiago mintzo dira euskaraz etxean eta neba-arreben artean); aldiz, elebidun gehiago dute lagunartean eta lankideen artean (bi eremuetan gehiago mintzo dira euskaraz).

### **Euskara sustatzeari buruzko jarrerak.**

Trebiñuko enklabean “errolatu gabeko biztanleak” bat datoz, oro har, “errolatutako biztanleekin”, euskararekiko interesari eta euskara sustatzeari buruzko jarrerari dagokienez.

Hala, %37k euskararen aldeko interesa du, eta %36k ez. “Erroldatuen” artean berriz, %39k interesa du, eta %38k ez.

Eskolarako adina duen haurrik izanez gero, %76k B (elebietan) edo D (euskaraz) eredia hautatuko luke, eta %71ren iritziz Trebiñuko eskola publikoan B edo D eredia ezarri beharko litzateke. Ehuneko horiek bat datoz “erroldatuen” artean lortutakoekin.

Bestalde, %34 euskara sustatzeko neurri “aktiboak” hartzearen alde dago, eta %26 berriz, kontra. “Erroldatuei” dagokienez, %35 alde dago eta %23 kontra.

Udalak euskara sustatzeko egindako lana balioztatzean ia ez dago alderik “erroldatuen” emaitzekin, hala ere, alde nabarmena dago erantzuten ez dutenen ehunekoan: “errolatu gabekoen” %50 eta “erroldatuen” %38.

Euskararenganako interesa zein euskara sustatzearen aldeko jarrera, biak dira handiago Trebiñuko “errolatu gabeko biztanleengan” Argantzunekoengan baino.

## **EMAITZA NAGUSIEN LABURPENA**

Trebiñuko enklabeke biztanleria hiru taldek osatzen dute, elkarren oso diferente:

1. “Enklabean jaiotakoak” herritarren laurdena besterik ez dira. Talde honetan batez besteko adina altua da, eta ikasketa-maila batez bestekotik behera dago. Biztanle gehienak nekazaritza sektoreari lotuta daude eta enklabean bertan lan egiten dute.
2. Urbanizazio berrietara bizi izatera “azken 10 urteotan iritsitakoak” biztanleen herena baino gehiago dira. Gehienak 30 eta 50 urte bitarteko senar-emazteak dira, seme-alabadunak edo seme-albarik gabekoak. Gasteiztik joandakoak dira eta bikotekide biek egiten dute lan, gehienetan, Gasteizen.
3. Bi muturren artean –iritsi berrien ezaugarrietara gehiago hurbildu arren– “lehenago iritsitakoak” daude, eta biztanleen ia herena osatzen dute.

Hiru kolektibo hain desberdinok elkaturik osatzen dute enklabearen biztanleria eta, hartara, ezaugarri jakin batzuez hornitzen. Hona hemen nabarmenenak:

- Herritarren hiru laurdenak enklabetik kanpo jaio dira (erdia Euskal Autonomia Erkidegoan).
- Erdia baino gehiago 25 eta 49 urte-bitartekoak dira.
- Bi herenek lan egiten dute, Gasteizen gehienek.
- Ikasle gehien-gehienek, baita lehen mailako ikasketak egiten ari direnek ere, enklabetik kanpo ikasten dute, Gasteizen ia denek.

2002 urtetik hona biztanleria %15 hazi da, eta gaurko biztanleriak, bere osoan, antzekotasun gehiago ditu urbanizazioko biztanleekin “jatorriz bertakoa den” biztanleekin baino.

Trebiñuko enklabean bizi diren zazpi herritarretatik bat elebiduna da (%13,5), eta ehuneko hori handixeagoa da Trebiñuko Konderrian (%14,5) Argantzunen baino (%11,5). Horrezaz gain, herritarren %13 elebidun hartzailleak dira.

2002 urtetik hona elebidunen ehunekoak 3,5 puntu egin du gora, %10etik %13,5era. Batetik, elebidun asko iritsi delako enklabera bizitzera, eta bestetik, gazteen artean gero eta handiagoa delako elebidunen ehunekoa.

Adinaren arabera nabarmen aldatzen da elebidunen ehunekoa: 16 urtetik beherakoen artean ia erdia da elebidun (%46), 16 eta 24 urte-bitartekoen artean herena (%34), 25 eta 34 urte-bitartekoen seirena (%16), 35-49 urte-bitartekoen hamarrena (%9), eta oso gutxi (%3) 50 urte edo gehiagokoen artean.

Elebidunen proportzioa, gainera, batez bestekotik oso gora egiten du EAEn jaiotako pertsonen artean (horietako gehienak arabarrak) eta goi-mailako ikasketak dituztenen artean.

Elebidunen ia herenak familiaren bidez jaso du euskara, ia erdiak hezkuntza-sistemaren bidez, eta gainerako laurdenak bere kabuz ikasi du. Hortaz, ez da harritzekoa gehienak euskaraz baino hobeto moldatzea gaztelaniaz.

Trebiñuko enklabeko herritarrek gutxi hitz egiten dute euskaraz; izan ere, %13,5 soilik da euskaraz erraztasunez jarduteko gai, eta horietako askok ez dute ingurugiro euskaldunik, hemen aztertu diren lau eremuetan.

Hala, euskaraz gutxi-asko hitz egiten dutenen artean, %5ek besterik ez du erabiltzen etxean eta lankideen artean; %13k lagunaren artean, eta %24k 25 urtetik beherako neba-arreben artean. 2002 urtearekin alderatuta, gehiago hitz egiten da euskaraz, batik bat lagunartean eta neba-arreben artean.

Biztanle elebidunak bakarrik hartuz gero, laurdenetik gora etxean egiten du euskaraz, herenak lankideekin, erdiak (25 urtetik beherakoak) baino gehiagok anai-arrebeekin, eta bi herenak lagunekin.

Eskolarako adinean dagoen seme-alabarik izango balute, hiru laurdenak B edo D ereduak hautatuko luke, eta proportzio bera enklabeko eskola publikoan B edo D ereduan ezartzearen alde dago. Bi iritzi horiek gehiengo dira aztertutako gizatalde guztietan.

Euskara jakitea eta erabiltzea modu “aktiboan” sustatzeko beste neurri batzuk ezartzeari dagokionez, herena baino gehiago (%35) alde egongo litzateke, ia laurdena (%23) kontra, eta multzorik handiena (%42) ez alde ez kontra.

2002 urtetik hona nabarmen hobetu dira euskararen aldeko iritziak eta jarrerak, 10 bat puntu, batez bestean. Hobekuntza, batetik, enklabera bizitzera heldu berri direnei zor zaie, izan ere, euskararen aldekoagoak dira, eta bestetik, lehendik enklabean bizi zirenen iritzia ere bost urteotan hobetu egin delako. Hobekuntza, batik bat, Trebiñuko udalerrian gertatu da.

Enklabeko udal biak euskara sustatzeko egiten ari diren lanari dagokionez, herritarren heren batek baino gehiagok ez du iritzirik eman, eta iritzia eman dutenen artean gehienak gustura daude; hala ere horien %18 ez dago gustura, udalaren ahaleginari gutxi irizten diolako, eta %3, berriz, euskararen alde lan gehiegi egiten duela iruditzen zaiolako. Trebiñuko udalerriko biztanleak Argantzungoak baino kritikoagoak dira udalarekin.



Azkenik, normalean enklabeen bizi diren herritarren ia %20 ez dago hango bi udalerrietako batean ere erroldatuta. “Erroldatu gabeko” talde hori, funtsean, “erroldatutako” pertsona baten senarrak edo emazteak edota seme-alabek osatzen dute. Oso talde gaztea da, herena baino gehiago 25 urtetik beherakoak baitira, eta gehien-gehienak 50 urtetik beherakoak.

“Erroldatu gabekoen” %25 elebidunak dira, eta “erroldatuen” %13,5. Beraz biztanleria osoa aintzat hartuz gero, “erroldatuak eta erroldatu gabeak”, elebidunen ehunekoak %15,5eraino egiten du. “Erroldatu gabekoek” gutxixeago hitz egiten dute euskaraz etxean, baina gehixeago lagunartean eta lankideen artean. Euskararekiko iritziak eta jarrerak antzekoak dituzte bi taldeek.